

Nabarmen igo da positiboen kopurua azken hilabetean

Amasa-Villabonak, Irurak eta Tolosak eremu gorrian jarraitzen dute; biharko eguneraketaren zain, baliteke Berrobi, Ibarra eta Leaburu-Txarama zerrendara batzea // 3

Pertsonengan inbertitzen segi nahi du Adunako Udalak

1.181.500 euroko aurrekontua onartu du 2021erako; aurtengo inbertsio nagusia Uztartza atzealdeko belazean parkea eraikitzea izango da, 240.000 euroko proiektua, hain justu // 5

«Tolosaldetik ekarpena egin nahi dugulako antolatu gara»

ANE HARANBURU ETA JATSU ORMAZABAL
KONTSEILU SOZIALISTA

Tolosaldeko Kontseilu Sozialista aurkeztu zuten urte amaieran, «langileen interesen alde» // 6

Tolosa CF-ko 1.go Maila Nazionaleko taldearen lehen garaipena

Bederatzigarren jardunaldian eskuratu dute garaipena tolosarrek; zazpi punturekin, zazpigarren postuan daude sailkapenean // 7



ENERITZ MAIZ

«Txikitik jolasleku moduan ikusten genuen baserria»

EGOITZ ETA ADUR GOROSTIDI BASERRITARRAK

Txikitatik ezagutu dute baserri mundua; enpresako lana eta baserrikoa uztartzen hasi ziren, eta duela hiru urte enpresakoa utzi eta baserritik bizitzeko erabakia hartu zuten abaltzisketarrek; gustura daude eginiko hautuarekin // 4

matrikulazio epea
urtarrilak 18-29

www.herrikide.eus

**ETORRI
GU
EZAGUTZERA**

herrikide.
ikastetxea

**ZURE
ESKOLA
IZAN
NAHI
DUGU**

haur-lehen hezkuntza 943 65 10 27
bigarren hezkuntza 943 67 03 11
herrikide@herrikide.eus



'Zilarrezko Haria' zerbitzua, bakardade egoeran dauden adinekoentzat

Bakarrik dauden pertsona nagusiei doako laguntza eskaintzen zaie telefonoz, dei anonimo eta konfidentzialen bidez

J. Artutxa Dorronsoro

Bakardade egoeran dauden Tolosako adinekoentzat telefonoz laguntza eskaintzeko *Zilarrezko haria* izeneko doako zerbitzua indartuko da. Haien borondatearen aurka bakarrik dauden adinekoak benetan bakarrik ez geratzea, eta norbaitekin hitz egiteko aukera ematea ditu helburu. Nagusilan adinekoen gizarte-boluntariotza elkarrekin indartuko du proiektua, Eusko Jaurlaritzaren eta Tolosako Udalaren babesarekin.

Bakardade egoeran dauden adineko guztiek erabil dezakete 900 713 771 telefono zenbakia, astelehenetik ostiralera (10:30-13:00 eta 15:30-17:00; ostiralean, goizez bakarrik). Lehen aldian datuak eman ondoren, boluntario batek deituko die. Posta elektronikoko bidez ere eman daiteke izena, hilodeplata@nagusilan.org helbidera idatziz.

Telefono bidezko laguntzaz gain, Tolosan ere badago adinekoen bakardadeari aurre egiteko aurrez aurreko laguntza programa: Adinkide. Iaz jarri zen martxan, adiskidetasun harremanen bidez bakardade egoeran dauden adineko pertsonen ongizatea hobetzeko helburuarekin.

Hiru modutara hartu daiteke parte programa honetan. Aurrez aurreko laguntza (astean gutxienez 2 orduz elkartzen dira adineko pertsona eta Adinkideko boluntarioa), telefono bidezko laguntza (telefono, bideo-dei edo posta bidezko harremanak sortzen dituzte) edota bizilagun handiak (bizilagunen eta auzotarren arteko harremanak sustatzen dira, inguruan bizi diren bizilagun boluntarioekin).

Parte-hartzaile guztiak ekin-tza-talde bateko kide izango dira, eta Adinkidek antolatutako topaketetan edota irteeretan parte hartu ahaliko dute. Informazioa eskuratzeko 676 197 354 telefonora deitu, tolosa@adinkide.org helbidera idatzi edo Emerterio Arrese eraikineko bulegora bertaratu behar da.

Deserrotzeaz, mahaiko eta itzalezko txotxongiloekin

Alas negras konpainiak, Topic-eko sorkuntza egoitza baliatu du, 'DéraciNés' obra garatzeko; Madrilen aurkeztuko duten arren, Tolosan ere eskainiko dute

Josu Artutxa Dorronsoro

Egoerak guztiz laguntzen ez duen arren, sorkuntza-egoitza modura bere funtzioa betetzen jarraitzen du Topic museoak. Alas negras konpainia izan zen 2020an zerbitzua erabili zuen azken taldea. Daniel Blanderrek eta Elsa Gire Pechayrek sortu zuten konpainia, Buenos Airesen (Argentina), eta 2016an Okzitaniara (Frantzia) joan ziren. Euren ikuskizunak, batez ere, txotxongilo-lanak dira, arte eszeniko ugari bateratzen dituztenak, hala nola, dantza, antzerkia, ma-labarrak edota maskarak.

Abenduaren 15etik 23ra izan ziren Txotxongiloen Nazioarteko Museoan, *DéraciNés* izeneko lanaren sorkuntza prozesuan. «Egoitza honetan, batez ere, Avignongo azken etapan jarri genituen eszenak leundu genituen, eta aurrera egin genuen eszena ezberdinen oinarriak egonkortuz», adierazi dute egoitzako parte-hartzaileek.

Mahaiko eta itzalezko txotxongiloen lana da *DéraciNés*. «Herri autoktonoak deserrotzearen ondorio batzuk erakusten dizkigu istorio honek, batez ere



'DéraciNés' izeneko obraren eszena ezberdinak egonkortzen aritu ziren, Tolosan, Alas negras konpainiako kideak. TOPIC

nerabeengan izan dezakeen eragina. Eszenografiaren parte diren mahaiko, obraren espazio eszenikoan eraldatu eta mugitzen dira, dramaturgiaren zerbitzurako. Itzalezko pertsonaien subkontzientera, oroitzapenetara eta

emozioetara eramango du publiko», azaltzen dute Argentinako konpainiako kideak.

Joan den hilabetean, Madrilgo Tartana Teatroak antolatutako Pendiente de un Hilo Jaialdiko Sustapen Plataforman parte har-

tu zuen konpainiak. 2021erako aukeratu zuten *DéraciNés* ikuskizuna, eta jaialdi horretan estreinatuko da obra. Ikuskizunaren ekoizlea izanik, Topic-en ere antzetzuko dute, nahiz eta oraindik data zehazteko dagoen.

Argizaiola argazki lehiaketaren erakusketa, Aranburu Jauregian

J. Artutxa Dorronsoro

Euskal Herriko Argazki Taldeen Federazioak urtero antolatzen duen argazki lehiaketa da Argizaiola. Hain justu, Euskal Herri mailan antolatzen diren tamaina txikiagoko argazki lehiaketa ezberdinetan hobekien sailkatutako euskal argazkilariek jasotzen dute bertan parte hartzeko gonbidapena. Parte hartzen duten argazkilarien artean sari nagusi bat eta bi *acesit* ematen dira.

Aipaturiko tamaina txikiagoko lehiaketa horietako bat Targazki elkarteak antolatutako To-

losa Herria lehiaketa da. «Argazki lehiaketan lehiaketa da Argizaiola», dio Elena Marquez Targazkiko lehendakariak.

Orain, Tolosako Aranburu Jauregian jarri dituzte ikusgai 2019an ospatu zen Argizaiola lehiaketaren 39. ediziora aurkeztutako argazkiak. Erakusketa ibiltaria da, eta tartean dira saritutako argazkiak nahiz parte hartu zuten irudien aukeraketa bat. Pasa den ostiralean zabaldu zuten eta otsailaren 2ra bitarte izango da bisitatzeko aukera.

Jesus A. Mesa Oteroren *Juegos de niños y de no tan niños* argazkia izan zen 2019ko Tolosa He-

rria lehiaketako irabazlea. Bigarren saria, berriz, Manu Barreiro Rodrigezen *Liberacion* argaz-



2019ko edizioko irudiak daude ikusgai erakusketan. MANU BARREIRO / JAVIER ZABALA

kiak lortu zuen. Eta hirugarren sailkatu zen Hector Abela Arbuesen *Gemelos*. Lehiaketa hartatik 2019ko Argizaiola sariketarako hiru argazki aukeratu zituen epaimahaiak: Manu Barreireoren *Liberacion*, Javier Zabalaren *Ya estan aquí!*, eta Andoni Mikel Alemanen *Ispiluan*.



Azken bi hilabeteetako positibo gehien atzeman dituzte

COVID-19an positibo eman dutenen bilakaera ikusita Berrobi, Ibarra eta Leaburu-Txarama daude eremu gorrian sartzeko arriskuan

Erredakzioa Tolosa

Osakidetzak emandako azken datuen arabera, gora egin du COVID-19an positibo eman duten herritarren kopuruak. Herenegun 10.755 test diagnostiko egin zituzten eta horietatik 894 (%8,3) positiboak izan ziren. Gipuzkoan, 227 atzeman zituzten, tartean, 19 Tolosaldean. Ondorioz, eta Nafarroako datuak kontuan hartuz, azaroaren 19tik erregistratu den kutsatu kopururik handiena izan zen herenegun Hego Euskal Herrian. Hori ikusita, Eusko Jaurlaritzak onartu du «tentsioa» nabaritzen hasi dela Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ospitaleetan.

ESKUALDEA

Tolosaldean ere nabaritzen da gorakada orokorra. Azken asteko datuei erreparatuta, hau da, urtarrilaren 11tik 18ra bitarte, 154 positibo egon dira, gehienak Tolosan, 77. Atzetik du Amasa-Villabona 27 positiborekin eta Ibarra da hurrengoa, 13rekin. Zizurkil (10), Alegia (9) eta Irura (9) dira kopuru altuak ere dituzten hurrengo herriak. Horiekin batera Leaburu-Txarama (5), Berrobi (2), Hernialde (1) eta Amezketan (1) egon dira positiboak. Azken asteko datuak duela hilabetekekin alderatuz gero, kopurua ia laukoiztu egin dela ikusi daiteke. Izan ere, abenduaren 14tik 21ra 41 positibo egon ziren eskualde-



Tolosa eta Ibarra arteko mugan Ertzaintzak jarritako kontrola, atzo. J.ARTUTXA

an. Igoera horren haritik iritsi dira eremu gorriari lotutako neurri bereziak.

Momentu honetan, eta astelehen eta ostegunetan argitaratzen duten zerrendaren arabera, Tolosa, Amasa-Villabona eta Irurako ostalaritza itxita dago eta sartu-irtenak mugatuta. Amasa-Villabonak (692) eta Tolosak (500) kolore gorrian jarraitzen dute, 2 eta 9 positibo gehiagorekin, hurrenez hurren. 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrie-

tan, Irura eremu gorrian sartu zen astelehenean, eta 2 positibo gehiago izan ditu azken 24 orduetan. 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan, herriko kutsatuen datuak kontuan hartzeaz gain, osasun eremua ere hartzen da. Kasu honetan, Alegiako (401) eta Tolosako (485) osasun eremuak laranja ageri dira, eta Ibarako (534) eta Amasa-Villabonako (507) osasun eremuak kolore gorrian daude. Hori aintzat hartuta, Berrobik, Iba-

rrak edota Leaburu-Txaramak izango lukete bihar eremu gorrian sartzeko arriskua.

Ikastetxeetako egoerari lotuta, Hezkuntza Sailak eguneratu ditu COVID-19ak duen eraginari buruzko datuak eta esan du une honetan ez dagoela aurrez aurreko eskola jardura etenda duen ikastetxerik. Dena den, 95 ikasgela daude itxita, 61 ikastetxetan. Itxitako ikasgelen kopurua ikasgela guztien % 0,54 dela adierazi du.

Garbiketa lanen ostean, zabaldu dute Tolosako liburutegiko eraikina

Erredakzioa Tolosa

Eraikina guztiz desinfektatu dute udalaren protokoloak jarraituz, ostiralean eraikina garbitzen duen langile batek COVID-19aren proban positibo eman eta gero. Ateak berme guztiekin zabaltzeko aukera dagoela ziurtatu du prebentzio teknika-riak, udalarekin elkarlanean. Hortaz, jada zabalik dago Aranburu Jauregia.

Liburutegia ireki dute, baita Aranburuko bi erakusketak ere. Hala ere, aste honetako irakurketa taldeen saioak ez egitea erabaki dute. Berdintasun sailak antolatutako saioak, berriz, telematikoki egitea aztertzen ari da udala. Ostiralean itxi zen eraikina osasun prebentzio arrazoiengatik. Langileek modu telematikoa artatu dituzte herritarrak itxita egon den denboran.

GUTUNAK

Tolosako TAO sistemari buruz

Tolosako TAO sistemari buruz nire iritzia eman nahi dut. Orokorrean uste dut ondo antolatuta dagoela, kexa bat daukat, ordea, tren geltokiko plazako aparkalekuaren inguruan.

Izan ere, gertu bizi naiz eta nire semea, Anoetan bizi dena, egunero etortzen da etxera 19:45ak aldera. Egia esan, ordu horretan ez da erraza aparkalekurik aurkitzea dagoeneko jendea etxean dagoelako. Nahiz eta San Esteban auzoan doako 3 aparkaleku egon, horiek ere ordu horretan, normalean, beteta egoten dira. Beraz, semeak geltokiko aparkalekuan bakarrik utzi dezake autoa. Oso garestia ez bada ere, derrigorrezkoa da arratsalde osoko tarifa ordaintzea eta esango nuke gehiegizko tarifa dela 15 minutuz kotxea bertan aparkatzeagatik.

San Frantzisko pasealekuan, adibidez, posible da 15 minutuko tarifa ordaintzea eta pentsatzen dut jende gehiagok edukiko duela arazo bera. Horregatik espero dut udalak laster neurriak hartzea.

Arrate Larrion Tolosa

Hilean bi egun daude bolumen handiko altzariak ateratzeko

ALEGIA // Alegiako Udalak gogorarazi nahi izan du bolumen handiko altzariak eta hondakinak ezin direla edozein egunetan atera espazio publikora. Hilabetean bi egun daude, eta bi gune daude bolumen handiko hondakinentzat. Hilabete bakoitzeko bigarren eta laugarren ostegunak dira bolumen handiko altzariak eta hondakinak ateratzeko egunak.

Bridge akademia Lacunza taldean sartu da

TOLOSA // Lacunza taldeak Tolosako Bridge Language School akademia bereganatu du. «Bridge-gek hizkuntza ikastaroak ematen jarraituko du, akademiak 2006an sortu zenetik izan duen lantaldeari eutsiz», esan du Lacunzak. Ana Oyarzabal Bridgeko jabe eta sortzaileak erretiroa hartu ostean heldu da akordioa. «Aurrera pauso honekin, gure presentzia areagotu egiten dugu lurraldean», gaineratu du.

Argazki tailerra antolatu du kultur etxeak

TOLOSA // Osasun krisiaren ondorioz bizi dugun egoera islatzeko argazki tailerra antolatu du Tolosako kultur etxeak. *Tolosan, koronabirusaren hilabeteetan* izenburupean landuko dira argazkigintzaren printzipioak eta partaideen proiektuak. 943 670 383 telefonora deituz edo *kultura@tolosa.eus* helbidera mezua idatziz eman daiteke izena. Parte hartzaile bakoitzak, gainera, 100 euro ordaindu beharko ditu.

Abiatu da 'Ombuaren itzala' filmerako auzolana

ZIZURKIL // Pello Mari Otaño bertsolariaren bizitza jasoko duen filma da *Ombuaren itzala*. Eguzki Art Zinema ekoizpen etxearen egitasmoa da eta auzolanean egin nahi dute pelikula. Filma gauzatu ahal izateko diru bilketa egingo dute datozen hilabeteetan. Ekarpene egiteko moduetako bat zine sarrera erostea izango da eta *pellomariotañoauzolana.eus* webgunean ere lagundu daiteke proiektua.

Eneritz Maiz Etxarri

Abaltzisketa

Enpresa munduan lanean ari tuagatik, baserritik bizitzeko hautua egin dute Adur eta Egoitz Gorostidi Urkia anaiek. Abaltzisketako Larraitz auzoko Zubeldi Erdi baserrian haragitarako txekorrak hazten dituzte.

Txikitatik tokatu zaizue baserrian lan egitea?

Egoitz Gorostidi. Bai, txiki-txikitatik tokatu zaigu bertan lan egitea eta bizitzea. Gure gurasek baserria zuten, nahiz eta aita ez zen bertatik bizi. Txikitatik ikusi dugu zer dagoen baserrian.

Zein oroitzapen dituzue?

Adur Gorostidi. Jolas leku moduan ikusten nuen baserria. Aitona, aita eta ama baserrian aritzen ziren lanean, eta ni bizikletarekin belar bola artetik karrerak egiten. Egun batean edo bestean ganbelan ere bukatu izan nuen. Jolas horren barruan pentsatzen dut esango zidatela hau eramanez edo hura ekarri. Baina behiak ez ziren nire jolaserako maskota.

E. G. Nik uste dut makinak eta motor soinuak izan dela gehien tiratzen ziguna. Animaliak ere bai, baina nik uste dut gehiena traktoarekin izan direla.

Nerabezaroan lan gehiago egitea egokitu zitzaizuen?

A. G. Bai. Ez dakit zenbat urte izango nituen, 15 urte inguru, eta gure aitak mina hartu zuen, eta ia negu oso bat geldirik egon behar izan zuen. Aitona eta amona jaisten hasita zeuden, eta ama eta nire artean eutsi behar izan genion negu horri. Hori izan zen inflexio puntua eta hortik aurrera ezberdin ikusten hasi nintzen. Ardurak bizkarraren gainean hartu beharrak ate asko eta begi asko ireki zizkidan.

E. G. Ni geroago hasi nintzen egin beharrak ikusten.

Ikasketekin, ordea, enpresa mundura sartu zineten.

A. G. Esperientzia ona izan dut, eta kanpoko enpresetan lan egitea oso erosoa da. Azkenean ordutegi bat duzu eta soldata ona duzu. Gure kasuan, ez dugu inoiz baserriko ibilera utzi, zerbait paraleloa izan da. Ikasketak eta baserria uztartzen genituen, eta gero, naturalki etorri zen enpresako lana eta baserriko lana, biak uztartzea. Ez zen izan bat edo bestearen hautua egitea.

E. G. Niri asteburuetan ere lan egitea tokatzen zitzaidan enpresan, eta ez zen oso erosoa. Ez nuen jai egunik izaten normalean behintzat. Asteazkera enpresatik jai egitea tokatzen bazitaidan, ukuilura etortzen nin-



ENERITZ MAIZ

«Oinarri on bat dugu etxean, eta hortik hazi nahi dugu gure ganadua»

EGOITZ ETA ADUR GOROSTIDI URKIA BASERRITARRAK

Enpresako lanak utzi, eta duela hiru urte erabaki zuten baserritik bizitzea Adur eta Egoitz Gorostidi anaiek; Pirenaika arrazako haragitarako txekorrak hazten dituzte, gurasoen baserriari jarraipena emanez

tzen eta hor egiten nuen lan. Asteburuak jai izanez gero, orduan bai izaten nuen aukera gehiago lagunengana eta joateko.

Noiz hasten zarete baserriko lan egiteko aukerari tiraka?

E. G. Nik uste beharra ikusten genuela jada, aurrera edo atzera egiteko. Gurasoak ere adinean aurrera, eta biak uztartzea ez genuen posible ikusten. Nik uste Adur izan zela lehenengo esan zidana ea zer iruditzen zitzaidan, eta hortik hasi ginen pixkana lantzen.

Langhegi biak uztartzeko?

E. G. Bai, lan gehiegi eta bizitzeko baldintza hain onak ere ez. Bietara nola zauden, azkenean biak ezin ondo egin.

A. G. Prozesu fase bat izan zen. Aurrena bideragarritasun plana egin genuen eta ea zer eman zezakeen ikusi. Ez zen izan gauegaitz goizterako erabaki bat. Prozesua martxan jarri eta emaitza batzuk eman zituen. Horren arabera hartu genuen erabakia.

Gurasoek gustura hartu al zuten zuen erabakia?

E. G. Ez hain gustura esango nuke. Nik uste beraiek nahiago zutela enpresan lan egitea. Ez zuten garbi ikusten hemendik bizitza ateratzeko aukera izango genuenik. Nahiago zuten enpresan lan egin, eta hau *hobby* moduan hartzea.

Zuek, ordea, garbi zenuten.

E. G. Behin emaitzek ematen zutela ikustean garbi ikusi genuen.

Etxeko baserria handitu behar izan duzue?

E. G. Bi pertsona garenez kantitate bat izatea eskatzen digute, eta azken bi urteetan obra egiten aritu gara. Nik uste dut jada iritsi zaigula gozatzen hasteko garaia.

A. G. Orain hiru urte bete dira ustiatzea gure izenean jarri genuela. Gaztenek proiektuan sartu ginen, eta bideragarritasun planak x animalia izan behar genituela eskatzen zuen. Horiek sartzeko gure lehengo ustiatzea ez zen behar adinakoa. Ganadu aldetik,

berriz, oinarri on bat dugula iruditzen zaigu etxean, eta hortik hazi nahi dugu gure ganadua. Horrek denbora eskatzen du, baina prozesu horretan goaz.

Nolakoa da zuen egunerokoa?

A. G. Guk bi fasetan banatzen dugu. Bat izango litzateke uzta biltzea negurako, eta bestea ganadua ukuiluan dagoenean jana ematea. Udako lana oso planifika gaitza izaten da: eguraldiak baldintzatzen du, belarrak, gauean egin duen basurak, ez dago ordutegi finkorik... Neguko planifikatuagoa dugu. 08:00ak aldera hasten gara. Ukuilura etorri eta 13:00ak aldera eguneko lanik handienak egiten ditugu. Egunak ezberdinak dira. Bazkal ostean, beste zeregin batzuk egiten aritzen gara, edo itxiturak konpondu, belar bolak ekarri, ... Iluntzean 17:00ak aldera hasten gara eta 19:00k bitarte edo aritzen gara: txekorrak bota, janak aurreratu, azpiak egin...

Udaberriaren eta udan al duzue lanik gehiena?

A. G. Udakoa desordena eta kausa izaten da. Agian hiru egunetan euria egingo digu eta oso lasai ibiliko gara, eta gero bost egunetan goizean jaiki eta ilundu bitarte, bazkaldu ere egin gabe, segidan belarretan ariko gara. Negukoa, aldiz, eguneroko lana da, baina ordenatuagoa.

Zer ematen dizue baserriak?

A. G. Animaliekin lanean ari za-

rela prozesu oso bat ikusten duzu. Esaterako, haziak jartzen aritu gara, bederatzi hilabetera txekor bat jaioko da, eta handik bi urtera behi izaten denean, eta behi ederra ikusten duzunean betetzen zaitu. Edo udaberriaren kanpora ateratzen direnean dotoreago ikusten dira. Naturari begiratuta ere, belar berde horren koloreak nola jantzen duen gure paisaia ikusteak eta guk hor eragina izateak ere nolabaiteko poztasuna ematen dizu.

E. G. Horri gehituko nioke, enpresarekin konparatuta, lasaitasuna ematen didala, eta lanerako gogoia eta grina sortzen dizkit. Zeurea den momentutik ezberdin ikusten da, hemen zu zara zure buruaren jabe eta esklabo.

Zer jaten dute Zubeldi Erdiko behiek eta txekorrak?

E. G. Behiek gehien bat siloko belarra eta artoa jaten dute; udazkenean patsa ere ekarri izan dugu. Txekorreki gizontzeko, berriz, artoa, pentsua eta belar ondua ematen diegu.

Naturaz ere gozatzen dute.

A. G. Apirila erdi aldera Abaltzisketako lur sailletara ateratzen ditugu, eta maiatzaren lehenean Aralarrean joateko eta baserri aurrereko aldapetan ibiltzeko aukera irekitzen zaigu udazkena bitarte.

Txekorrak haztean saltzea komeni. Zuek ziurtatua duzue hori nolabait.

E. G. Data konkreturik ez dugu izaten, baina Harakai Urkaikok komertzializatzen du gure haragia. Urtebete ingururekin, saltzeko moduan dagoenean abisatzen diegu, eta beraiek eramaten dituzte hiltzeko.

Horrek lasaitasuna emango du, ezta?

A. G. Handia. Pentsa, 13 hilabete txekorrak izango bagenitu hemen nora saldu ezinik... Buruhautea litzateke. Horrek segurtasun bat ematen du. Normalean oso ondo saldu izan ditugu, bere garaian. Eta kentzea bakarrik ez da, gero kobratuko duzunaren ziurtasuna edukitzea ere gauza ederra da.

Zuen moduan pauso hau emateko zalantza dagoen bati zer esango zenioke?

A. G. Gustatzen bazaio eta probatu badu aurrera egiteko esango nioke. Ez dut uste damutuko litzatekeenik. Bizitza honetan bide bat hartu eta atzera egitea ez da porrot bat; probatu eta beti egongo da atzera egiteko denbora.

E. G. Gehien bat, lan hau gustukoa izan behar da. Beste edozein lanek baino ordu gehiago eskatzen du. Gustatuz gero, nik uste erraz eramaten dela lan hau.

Aisialdirako parke berria eraikitzen hasi dira Adunan

Proiektuak 240.000 euroko balioa du, eta erdia Erein programak jarriko du; 2021eko aurrekontuan jasotako inbertsioetako bat da

Jon Miranda Aduna

Adunako Udalak abenduaren 30ean egindako osoko bilkuran behin behineko onarpena eman zion 2021eko aurrekontuari. 1.181.500 euro baliatuko ditu udalak ohiko gastuak estaltzeko eta inbertsio berriak egiteko. Josu Amilibia alkateak aurreko urteetan bezala, pertsonengan inbertitzen jarraituko dutela adierazi du: «Azpiegituretan baino kezka handiagoa dugu herritarren ongizatean. Bereziki garaiotan, adunarren aisialdirako aukera bermatu nahi dugu, bada-kigulako horrek herritarren ongizatean eta osasunean positiboki eragiten duela».

Norabide horretan, Uztartza atzealdeko belazean parkea eraikitzea izango da aurtengo inbertsio nagusia. Belardia, gimnasia egiteko gailuak, mahaiak, komun publikoak eta ur jokoak jarriko dituzte Gaintza baserri ondoko gunean. «Azken urteetan

Adunako herrigunea asko urbanizatu da. Plazak egokitu dira, kirol pista egin da, espaloiak eraiki dira Villabonara, sagardotegieta- edota hilerria joateko. Ingurubide bat osatu da autoentzat eta oinezkoak segurtasunez eta eroso ibili daitezke herrian. Baina gure gogoeta izan da, hemen herrigunean, jendeak patxadaz egiteko eremu berde bat behar duela, udan eguzkia hartzeko, liburu bat lasai irakurtzeko edota ostatutik ogitartekoak hartu eta bertan jateko. Udan freskatu daitezkeen umeek ere izango dituzte urtxorrotak parkean», esan du Amilibiak.

Orotara, 240.000 euroko inbertsioa egingo du udalak parkea eraikitzen eta erdia Eusko Jaurlaritzak finantzatuko du Erein programaren bitartez. Lanak hasita daude dagoeneko, eta uda hasi aurretik parkea prest egotea aurreikusten du alkateak.

Adunako Udalak badu ingurumenarekiko konpromisoa, eta



Uztartza atzealdeko eremuan hasi dira parke berria eraikitzeko lanak; uda aurretik amaituta egotea aurreikusten dute. J.M.

ahalegin horretan sakontzeko, ibilgailu elektrikoentzako kargagailuak jarriko dituzte Uztartzaren aparkaleku berrituan. Bi plaza izango dira eta dezenteko potentzia izango dute Amilibiak azpimarratu dutenez: «N1 errepedearen ondoan geratzen da gure herria eta zerbitzu horrek lagundu diezaguke Aduna elektro-mugikortasunaren mapan kokatzen».

Ingurumenaren inguruko lan- ketarekin jarraitzeko, eraikin publikoetako teilatuetan eguzki plakak jartzeko prozesua abiatuko du aurtengo udalak. Horrela nabarmendu du alkateak: «Goiener eta Nafarkoop-ekin ari gara gaia lantzen eta gure konpromisoa da energia berriztagarria sortzea. Guk sarera egiten dugun ekarpena berriztagarria izatea da helburua. Etorkizunera begira ea herritarrek ere jarraitzen duten orain udalak hartuko duen norabidea».

Aurtengo hasiko dira, Kamio deitzen dioten eremuan etxebizitza promozioarekin. Bi partzelatan banatuta dago eremua, batean 18 etxebizitza aurreikusten dira eta bestean 24. «Promotoreak aurtengo hasiko dira 18 etxebizitzako par-

tzelaren garapenarekin. Udalaren asmoa da beste partzela eskuratzea eta aurtengo aurrerabidea ematea kontu honi. Hasi gara hitzarmena lantzen. Modu horretara, 24 etxebizitza egiteko kontrola herriaren esku geratuko litzaiteke. Estrategikoa iruditzen zaigu eremu hori geureganatzea, ez baitugu herria desnaturalizatzea nahi; herri txikiaren xarma hori mantendu nahi dugu. Aurrerantzean, herritarren beharren arabera eraiki nahi ditugu etxebizitzak», dio alkateak.

Bide batez, aurtengo abiatuko du udalak arau subsidiarioen berrikuspina. 2007koak dira azkenekoak eta araudi berrira egokitze-ko lana egingo dute. Bizpahiru urte iraungo duen prozesua izango da eta aholkularitzak eta egingo diren parte hartze prozesuak finantzatzeko dirua gorde dute aurtengo aurrekontuan.

Horrekin batera, inbertsio txikiagoak egingo dituzte 2021. urtean zehar. Besteak beste, Txantxane ondoko parkeko lurra aldatuko dute, udal brigadarentzat atoi berria erosi dute eta elizako kanpandorreko erlojuan egokitzapenak egingo dituzte.

GAKOAK

1 Parkea. Herriaren sarreran eraikiko den parkean, komun publikoak, mahaiak, gimnasia egiteko gailuak eta ur jolasak jarriko dituzte eta belardia egokituko dute. 240.000 euroko inbertsioa egingo du udalak eta %50 Erein programaren bitartez finantzatuko da.

2 Kargagailuak. Ibilgailu elektrikoentzat bi kargagailu jarriko dituzte Uztartzako aparkaleku berrituan. Elektro-mugikortasunaren esparruan aitzindari izan nahi du Adunak. 20.000 euro inguruko inbertsioa egingo du horretarako.


3 Kamio eremua. Udalak eremu horretako bi partzela-ko bat eskuratzeko bidea zabalduko du aurtengo. Lur sail horretan 24 etxebizitza egiteko aukera kontrolatu nahi du udalak, eremua erositako.

4 Arau subsidiarioak. Arauak berritzeko prozesua abiatuko dute aurtengo. 50.000 euroko partida zabaldu du udalak lan horietarako.

AURREMATRIKULA
IREKIA
URTARRILAREN
18TIK 29RA



ikastolak
hezkuntza
eraldatzen



Irati Saizar Artola

Urte amaieran aurkeztu zuten eskualdeko Kontseilu Sozialista, «langileriaren interesen alde» jarduteko. Bertako kide dira Ane Haranburu eta Jatsu Ormazabal. **Zein testuingurutan sortu du zue Kontseilu Sozialista?**

Ane Haranburu: Kapitalismoaren egiturazko krisialdi baten erdian sortu da Kontseilu Sozialista. Orain arte ezagutu dugun ongizate estatuaren gainbehera momentuan eta langile klasearen bizi baldintzak esparru askotan okertzen ari direla ulertzen dugun testuinguruan.

Jatsu Ormazabal: Egoera zail horren aurrean langile klasea mota guztietako babesik gabe egoteak kezkatzen gaitu. Hau da, gainera datorkigun guztiari langileriaren interesak lehenetsiz aurre egiteko antolakuntza tresna propiorik gabe eta erreferentzia politiko baten faltan aurkitzen garela uste dugu. Hutsune horretan ekarpena egitea da gure asmoa.

Zein egoeratan aurkitzen da langile klasea gaur egun?

J. O.: Ez gara baikorrek aspektu horretan. Izan ere, 80ko hamarkadan edo 2008ko eztanda finantzarioarekin ondo frogatuta geratu denez, krisialdia latza da langile klasearentzat. Gizartea are gehiago polarizatzen ari dela ulertzen dugu; azken hamarkadetan langile klasearen sektore batzuetan sortu den erosotasun-egoera ekonomikoa amaitzen ari da. Hau da, langile klasean ezegonkortasun ekonomikoa eta pobrezia areagotzen ari dira; beste aldean, berriz, aberastasuna are esku gutxiagotan kontzentratzen da. Zentzu horretan, langabezia eta etxe kaleratzeak bezalako fenomenoaren areagotze bat espero dugu, eta baita miseria moralaren ondorio diren eraso matxisten gisako adierazpe-

«Langileria antolakuntza komunistara lotzea da helburu nagusia»

ANE HARANBURU ETA JATSU ORMAZABAL KONTSEILU SOZIALISTA TOLOSALDEKO KIDEAK

Antolakuntza komunistak indartu asmoz sortu dute Kontseilu Sozialista eta eskualdetik ekarpena egiteko prest dira; kapitalismoa gainditzea eta Euskal Estatu Sozialistaren sorrera dituzte ortzi-muga



ATARIA

na ere. Horregatik, gure ustez erabateko gaurkotasuna du proletarizazio prozesuaz eta langile klaseaz hitz egiteak, azken horren forma aldatu bada ere.

A. H.: Aspektu politikoari dagokionez berriz, politika instituzionalak langile klasean sortzen duen atxikimendu eza oso altua da. Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan abstentzioa ia %50ekoa izatea adierazgarria da: egungo sistema politikoak eta bertan parte hartzen duten alderdiek langileriaren beharrei erantzuteko daukaten ezintasunaren isla da. Egoera horrek de-

mokrazia burgesa legitimitate krisi batean murgildu du.

Testuinguru horretan, miseria egoera eta atxikimendu-ez politikoa dela eta, gobernu hartzen ari den hautua autoritarismoan eta estatu polizialean sakontzea dela uste dugu, langile klasea diziplinatzeko helburuarekin. Hau da, estatua eta klase burgesa babesteko indartzen ari dira langileenganako kontrola eta indarkeria. Norabide horretan ulertzen ditugu, birusaren aitzakian, azken hilabeteetan gobernuak hartu dituzten hainbat neurri arbitrario eta autoritario.

Eta zein helburu dituzue?

J. O.: Kontseilu Sozialista ez da langile klaseak behar duen erreferentziatzako behin betiko antolakunde politikoa, ezta gutxiago ere. Antolakunde horren erakuntzan Tolosaldeko ekarpena egin nahi dugu eta horregatik antolatu gara. Zentzu horretan, langileria antolakuntza komunistara lotzea da daukagun helburu nagusia, eremu eta konpromiso ezberdinen bitartez. Kapitalismoa gainditzea eta Euskal Estatu Sozialistaren sorrera baita gure ortzi-muga. Horretarako, lehentasunezkoa da estatu-instituzioetatik eta ideologia burgesetik autonomiaz jardungo duen mugimendu zabala sortzea.

Zein aspektutan egingo duzue lan?

J. O.: Hainbat lan-lerro jarri ditugu martxan: batetik, langileriak bere kabuz eta bere interesen arabera pentsamendu kritikoa garatzeari ekarpena egin nahi diogu. Bestetik, premiazkoa dela deritzogu sektore zaugarrienetan dauden langile sektoreen beharrei erantzutea. Horretaz gain, hainbat komertzio, establezimendu eta tabernetan jabego txikiak langileekin mota guztietako

gehiegikeriak egiteko daukaten inpunitatea ere borrokatu nahi dugu, baita polizia bortizkeriari eta jazarpenari aurre egin ere. Horrekin batera, preso politikoen amnistiaren aldeko aldarria zabaldu nahi dugu. Langileriarentzako aisialdi eta kultura eskaintza anitza egiteko proposamena osatzea ere gure asmoen artean dago. Gainera, gazte, ikasle eta emakumeen esparruan lan egiten duten Gazte Koordinadora Sozialista, Ikasle Abertzaleak eta Itai antolakundeekin hartu-eman indartzea ere bada apustua.

Jenerazioen arteko lankidetzaz bilatzen duzue?

A. H.: Egun bizi dugun egoera belaunaldien arteko haustura bat sortzen ari da. Izan ere, bereziki belaunaldi gazteak gara ezegonkortasun egoera bizitzen ari garenak -eta biziko dugunak-, gure gurasoek baino baldintza material eta ekonomikoki makurragoetan bizi beharko dugun belaunaldia garela ere esan ohi da. Egoera horrek, aldi berean, gazteen artean ikuspegi marxista eta iraultzaile areagotzea ere eragin du; gu gara horren adibide bat.

J. O.: Hala ere, uste dugu krisialdia proletariotzaren adin-tarte guztietan ari dela eragiten eta horregatik ez dugu adinaren arabera banaketa sustatu nahi. Klase batasunaren indarrean sinisten dugu, baita belaunaldien arteko batasunean ere, belaunaldi bakoitzak dituen arazoei langile klase osoaren indarrarekin erantzun behar zaiola pentsatzen dugulako. Adibidez, ez dugu uste pentsionisten egoera bidegabea beraien arazoa soilik denik, belaunaldi arteko langile batasunarekin erantzun beharreko problematika baizik. Funtsen, langileriaren klase batasuna antolatu nahi dugu, belaunaldiartekoa dena eta eremu anitzetan lan egiteko gaitasuna duena.

Hilberriak eta urteurrenak



Paxatxo Sarriegi Olano



Gure herriko maixuari,
gure lagunari,
sokan betiko
dantzan beti!



AURTZAKA DANTZA TALDEA ETA IGARTZAKO DANTZARIEN KOFRADIA

BEASAINen, 2021eko urtarrilaren 20an

ATARIAn jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Ahal den puntu gehien lortzea

Tolosa CF-ko 1. Maila Nazionaleko taldeak lehen garaipena lortu du etxean, sailkapenean aurkari zuzena den Arratiaren aurka 2-1 irabazita

Imanol Garcia Landa Tolosa

Larunbatean iritsi zen Tolosa CF-ko futboleko 1. Maila Nazionaleko taldeak hainbeste espero zuen lehen garaipena etxean. Bederatzigarren jardunaldira arte itxaron behar izan dute, zehazki Berazubín jokatu duten bosgarren partidari: Arratia taldeari 2-1 irabazi zioten. «Arraroa izan da hainbeste aste behar izatea etxean partida bat irabazteko, baina pozik gaude», esan du Imanol Cabero entrenatzaileak.

Partida osotasunean «nahasia» izan zela gaineratu du Caberok: «Argi genuen nola jokatu behar genuen partida hau, kontuan izanik gure zelaia handia dela eta espazioak izango zirela. Ondo hasi zen, azkar hasi ginela irabazten, eta horrek konfiantza eman zigulako. Gero, jokoa aldetik saiatu ginen, baina gauzak ez ziren atera, ez genuen lortu gure jokoa egitea». Bigarren gola ere sartu zuten lehen zatian, eta bigarren gola markagailuari eustea zela asmoa azaldu du Caberok: «Segituan gola sartu zigiten, eta gero igehiago estutu zuten hamar minutu izan zituzten, baina ondoren buelta eman genion eta hortik aurrera partida gurea izan zen. Aukerak izan genituen, dezente gainera, baina ez genuen lortu eta pixka bat sufritzea ere tokatu zitzaigun».

Horrelako partidak aurrera



Ezkerrean, Tolosa CF-ko jokalariek Arratiaren aurkako gol bat ospatzen; eskuinean, partidaren une bat. AGERREMEDIA.COM



atera behar izaten direla dio entrenatzaileak: «Aurkari zuzena den talde baten aurka hiru puntuak lortzea zen helburua eta horrelaxe egin genuen. Bi taldeak gaude gure multzoan beheko postuetan eta garrantzitsua zen beraiei tartea ateratzea, gure aurretik dauden taldeetatik ez gehiegi urruntzeko».

Arratiaren aurkako partidarekin dagoeneko ligako lehen faseko hamalau partidetatik bederatzia jokatu dituzte Tolosakoek. Ahalik eta puntu gehien lortzea da lehen fase honetako helburua. Izan ere, denboraldi honetan bi multzo daude 1. Maila Nazionalean, bat bederatzia taldekoa eta bestea zortzi taldekoa, eta azken honetan dago Tolosa CF. Lehen fasean, multzo bakoitzeko lehen hiru taldeak sailka-

tuko dira igoera fasea jokatzeko. Beste 11 taldeek bigarren fase bat jokatu dute, baina talde bakoitzak bakarrik beste multzokoen aurka jokatu. Lehen faseko zein bigarren faseko puntuak batu ondoren, 11 horien arteko sailkapeneko azken bost taldeak mailaz jaitsiko dira.

ORAINGOZ, AZKEN BOSGARREN

Lehen fase honetan, Tolosaren asmoa da bere atzetik bi edo hiru talde uztea, gero bigarren fasean beste bi talde atzean uzteko. Azken finean, euren multzoko sailkapena kontuan hartzeaz gain, beste begi bat dute gaur egun ere beste multzoko emaitzetan eta sailkapenean. Orain zazpigarren postuan daude Tolosakoak eta zazpi puntu dituzte. Beren azpitik Arratia dute, puntu bakarra-

rekin, eta beren gainera Aurrera de Vitoria, 9 punturekin, eta Oiartzun, 13 punturekin. Beste multzoan, Itaroa, 2 punturekin, eta Logroñes, puntu bakarrarekin daude azken bi postuetan; gorago, Castejon eta Mulier daude, bakoitza 9 punturekin. Hau da, gaur egun, bi multzoak kontuan hartuta, azken bosgarren postuan daude tolosarrak.

Cabero, bere aldetik, baikorra da: «Nire ustez gure multzoa nahiko indartsua da bestearekin alderatuta, eta garrantzitsua izango da bigarren fasea nola iristen garen, eta ea beste multzoko taldeen aurka maila emateko gai garen eta azken bost postu horietatik ateratzeko gai garen».

Jokoaren aldetik, hobeto aritu diren partidetan punturik ez lor-

tzeak amorrua ematen dio Caberori: «Lehen itzulian, San Ignazioen eta Oiartzunen kontra, aurkariak baino joko hobea egin genuen eta ez genuen lortu punturik. Eta, gero, adibidez Añorgaren aurka, ez zen hainbesteko jokoa ikusi, partida talka askotakoa izan zen, eta aurrera ateratzeko gai izan ginen». Denboraldi hasieratik nahi zuten joko aldatuta egin, horrela hasi ziren, eta aurreko denboralditik aldaketa izan dela nabarmendu du Caberok, «baina gauza asko ditugu hobetzeko».

Zoritxarrez aldatu ez zaiena lesioen gaia da. Izaro Goenagak eta Lorena Zumetak belauneko lesio larriak izan zituzten eta ebakuntza egin berri diete. «Emakumezkoen futboleko dirudienez gero eta belauneko lesio gehiago izaten ari dira, eta gure kasuan denboraldiko lehen partidari Izaro galdu genuen. Orain lau-bost aste, harrobitik igo den Lorena lesionatu zen». Ebakuntzak ondo atera direla eta orain berreskuratzea tokatzen zaiela esan du Caberok. Epe luzeko lesioak dira eta aurtengo denboraldian ezingo dute jokatu.

Egun publikorik gabe ari da jokatzeko taldea, COVID-19a delata eta ezarritako neurriengatik, baina aurreko larunbatetik hasita Youtube-ko Tolosa CF-ren kanaletik partidak zuzenean ematen hasi dira. Caberori garrantzitsua iruditzen zaio aukera hori: «Jendeak Berazubira sartu ezin duenez, behintzat modua izatea partida ikusteko. Klubetik esfortzu polita iruditzen zait».

Garrantzi handiko partida irabazi dugu

Aurreko larunbatean Arratiaren aurka jokatu genuen Berazubín. Bagenekien garrantzi handiko partida izango zela, haien eta gure egoera antzekoa zela ikusita, eta hiru puntuak bai ala bai lortu behar genituela jakinda.

Astean zehar oso ongi entrenatu genuen eta gure artean nabaria zen gogotsu eta motibatuta geundela partida jokatu eta aurrera ateratzeko.

Partidari dagokionez, 2-1 ira-



Aulkitik
Helene Arruebarrena
Tolosa CF, 1. Maila Nazionalea

baztea lortu genuen. Lehenengo zatian Ainhoa Bengoetxeak ireki zuen markagailua eta segidan Maria Martijak sartu zuen gure bigarren gola. Horrela, atsedendira 2-0 irabazten joatea lortu genuen.

Atsedendian entrenatzaileek hainbat zuzenketa egin ondoren bigarren zatian bila abiatu ginen, baina zoritxarrez aurkariak haien lehen gola sartzea lortu zuten hasi eta berehala. Gu ez ginen behera jaitsi eta aurrera jarraitu genuen borrokatzen.

Partida amaieran hainbat aukera izan genituen baino ezin izan genuen baloia euren atean sartu. Zorionez, aurten lehenengo aldiz geure etxean irabaztea lortu genuen.

Partida bukatu eta berehala Sebasen pastelak jan genituen, eta oso onak zeuden. Mila esker Sebas zure detaile polit horrengatik, asko disfrutatu genuen.

Hurrengo asteburuan atsedena dugu eta beraz, ez dugu partidarik jokatu, baina prest gaude hemendik bi astera San Ignazio

talde indartsuari aurre egin eta irabazteko!

Animo ebakuntza egin berri dioten bi jokalaririk zoragarriak, Izaro eta Lorena, alegia. Ziur nago segituan gure artean izango zarete berriro!

Animo baita ere lesionatu guztiei, ea laster bueltan zareten!

Bestalde, Maria Herrerori esker ematea gustatuko litzaidake, plazerra izan da zu ezagutu izana eta zurekin zelaia partekatu izana! Askok sumatuko dugu zure hutsunea eta izugarri botako zaitugu faltan!

Besterik gabe, aupa Tolosa eta aupa neska!



ASTEAZKENA, 2021EKO URTARRILAK 20
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeke Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goitz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ESTALPE BERRIA DUTE

Amasa-Villabonako Udalak karpa handi bat alokatu eta ezarri du Arratzaingo eskola eremuko patioan. Horrela, curia ari duenean Fleming herri eskolako eta Ernioeoa BHI-ko ikasleek aire libreko espazio estali gehiago izango dute. Ikasleen osasuna eta segurtasuna zaintzeko eta COVID-19aren kontrako prebentzioa hobetzeko helburuarekin ere ezarri duela karpa azaldu du Amasa-Villabonako Udalak. ATARIA

ASTEAZKENA 20

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Herribizigune elkarteak antolatuta, formazio saioa, Lakari eta Talaios kooperatiben laguntzarekin, 17:00etan: Lurraldea eta komunitatea.

Erakusketak

Tolosa. *Sorginak!* erakusketa Aranburu jauregian. EmPoderArte elkarteak eta Tolosako Berdintasun sailak antolatutako erakusketa.

Tolosa. Argizaiola argazki erakusketa, Aranburu jauregian.

Tolosa. *Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak* aldi baterako erakusketa, Topic-en.

Zizurkil. *Munduari itzulia* erakusketa, Plazida Otaño liburutegian.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Hiri baratzea

11:30. Gaurkoan Tolosaldetik

17:00. Martaren eskulanak

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik

22:00. Urrutiajunbea

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Goizeko magazina: trafikoa, prentsari begira, kolaboratzaileen tartea.

15:00. Desafioa. Herri kirolak Joxe Angel Sarasolarekin.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

19:45. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saio Imanol Artola Felixekin.

21:00. Lokatzetan. Umore saioa.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Ben-goetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro lasaia. Goizean erdi eta goi-mailako hodei batzuk izanagatik, giroa argia eta atsegina izango da. Arratsaldean hodeitza trinkotuko da eta euri tantaren bat eroriko da. Hala ere, oso gutxi botako du eta orokorrean giroa lasaia izango da. Haizeak hegotik zakar joko du eta temperatura maximoak 12-14 graduan errendituko dira.

Bihar. Kaskartzera egingo du eguraldiak. Goizean hego-mendebaldeko haizearekin giro nahiko lasaia izango dugu. Erdi eta goi-mailako hodei asko agertuko da, baina orokorrean ateri eutsiko dio. Arratsaldean haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin, hodeitza trinkotu eta euritara joko du, tarteka zaparrada batzuk izango ditugularik. Termometroek gora egin eta maximoak 14-16 graduan errendituko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus


San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk...

www.ataria.eus · 107.6 fm



Zozketak



Atarikideentzat **liburu bat** daukagu

Yurre Ugarte tolosarraren **Lilurabera** liburua zozkatuko dugu aste honetan.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

ZUZENEAN

Ataria Irratia Inazio Urruzola Txakolindegian

Urtarrilaren 22an, ostiralean, Pasahitza saioa Alkizako txakolindegian

09:00etatik 13:00etara Ataria Irratia, 107.6 fm

ataria 107.6 fm
irratia www.ataria.eus

ataria.eus/irratia/zuzeneko